

## 6. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Publizitate kanpaina bat behar dugu, gure produktua jendeari ezaguna egiteko eta errazago saltzeko. Publizitateak eragina izateko, gure mugikorra iragartzeko modu desberdinak aukeratu ditugu.

Hiru enprekin lan egingo dugu; "Appel", "Mercadona" eta "Bolbomatica", gure mugikorreki gehituko dizkiogun dinamoak emango dizkigunak izango baitira. Hori dela eta, aurrez aipatutako hiru enpresen arabera publizitatea egokituta izan beharko da.

Gure produktua ezagutarazteko erabiliko ditugun moduak aipatu behar ditugu; telebista eta sare sozialak (Twitter, Instagram, Youtube, Tiktok...). Izan ere, gure produktua, gehien erabiltzen diren plataformetan jarrita, erraz izango da ezaguna jendearen artean. Azkenik, modu fisikoan ere iragarriko dugu; maketa txiki batzuk eraikiko ditugu, zeinekin jolastu eta probatu ahalko duten gure produktuak eskaitzen duena. Maketa hauek Mercadona supermerkatuetan banatuko dira.

Gure produktuaren iragarkia plataformetan, bideo labur eta dibertigarri bat izango da. Mezu positibo bat izango duena, horrela jendeari erraz jakin mina piztuko dio.

